

# Graduko ikasketetan onartzea 2017/18 ikasturtea

## Baldintza orokorrak

1. Ez da kupo bereizirik ezartzen kupo orokorreko sarbide desberdinetarako:
  - a. Batxilergoa
  - b. Lanbide Heziketa
  - c. Atzerriko ikasketak.
2. Gaur egungoaren antzeko sistema bati eusteko (izan ere, batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikasle eta irakasleek bereganatua dute sistema hori), onarpen notaren arabera antolatuko da gradu bakoitza. Hala, nota hori gehenez ere 14 puntukoa izango da, eta bi osagai izango ditu: bata sartzeko modalitateari lotua, eta bestea graduari lotutako gai jakin batzuei lotua.
3. Unibertsitateak ez du proba bereizirik egingo graduari lotutako kalifikazioa kalkulatzeko.

## Batxilergoaren arabeko lehenetasunak

Zientzietako Batxilergoa lehenetsiko da gradu hauetarako:

### *Zientzien jakintza adarra*

- Biologia
- Biokimika eta Biologia Molekularra
- Bioteknologia
- Ingurumen Zientziak
- Elikagaien Zientzia eta Teknologia
- Fisika
- Geologia
- Matematika
- Kimika

### *Osasun Zientzien jakintza adarra*

- Farmazia
- Giza Nutrizioa eta Dietetika

### *Ingeniaritza eta Arkitekturako jakintza adarra*

- Arkitektura Teknikoa
- Ingurumen Ingeniaritza
- Ingeniaritza Zibila
- Ingeniaritza Elektrikoa

- Ingeniaritza Elektronikoa
- Ingeniaritza Mekanikoa
- Ingeniaritza Kimikoa
- Industria Elektronikaren eta Automatikaren Ingeniaritza
- Energia Berriztagarrien Ingeniaritza
- Geomatika eta Topografia Ingeniaritza
- Informatika Ingeniaritza
- Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritza
- Industria Antolakuntzaren Ingeniaritza
- Industria Kimikaren Ingeniaritza
- Komunikazio Teknologiaren Ingeniaritza
- Industria Teknologiaren Ingeniaritza
- Meatzaritza eta Energia Teknologiaren Ingeniaritza

Gainerako graduatarako ez dago batxilergo lehenetsirik.

## Prestakuntza zikloaren araberako lehenetasunak

Lehenetasuna emango zaie graduaren ezagutza adarrarekin lotutako lanbide familiako zikloei.

## Onarpen nota

Onarpen nota = sarbiderako nota + graduarekin lotutako kalifikazioa

## Sarbiderako nota

1. Batxilergoko azken ebaluazioa (BAE) gainditu duten batxilergoko ikasleak: **batxilergoko azken kalifikazioa**, honela definitua:

$$0.4 \cdot \text{BAE} + 0,6 \cdot \text{batxilergoko batez besteko nota}$$

2. Titulu ofizial hauek dituzten ikasleak: Lanbide Heziketako goi mailako teknikariaren titulua, Arte Plastikoen eta Diseinuaren goi mailako teknikariaren titulua edo goi mailako kirol teknikariaren titulua, hirurak ere Espainiako hezkuntza sistemakoak; eta titulu horien baliokidetzat edo homologatutzat jotako tituluak, diplomak edo ikasketak dituzten ikasleak: **zikloko batez besteko nota**.
3. Europako Batasuneko estatu kideetako edo arlo horretan aplikagarriak diren nazioarteko elkarrekotasun hitzarmenak dituzten beste estatu batzuetako hezkuntza sistemetatik datozen batxilergoko tituluak, diplomak edo ikasketak dituzten ikasleak (hemendik aurrera *komunitarioak*): **UHUNek emandako nota kredentziala**.
4. Batxilergoko titulua, Lanbide Heziketako goi mailako teknikariaren titulua, Arte Plastikoen eta Diseinuaren goi mailako teknikariaren titulua edo goi mailako kirol teknikariaren titulua (Espainiako



hezkuntza sistemakoa) ez den beste titulu, diploma edo ikasketa batzuk dituzten ikasleak, betiere Europako Batasuneko estatu kide batean edo arlo horretan aplikagarriak diren nazioarteko elkarrekikotasun hitzarmenak dituzten beste estatu batzuetan lortu badituzte, baldin eta estatu kide horrek unibertsitatera sartzeko eskatutako baldintza akademikoak betetzen badituzte: **UNEDek emandako nota kredentziala.**

5. Espainiako hezkuntza sistemako batxilergoko tituluarekin homologaturiko tituluak, diplomak edo ikasketak dituzten ikasleak, betiere Europako Batasuneko kide ez den estatu bateko edo batxilergoko titulua aitortzeko nazioarteko elkarrekikotasun hitzarmenik ez duten beste estatu batzuetako hezkuntza sisteman lortu badituzte (hemendik aurrera *ez-komunitarioak*): **UHUNek curriculum a baluatu ondoren emandako nota.**
6. Espainiako hezkuntza sistema zaharretako batxilergoko ikasketak dituzten eta bere garaian unibertsitaterako sarbidea zuten ikasleak: **kasuan-kasuan unibertsitatera sartzeko bidea eman zien nota.**

### **Graduarekin lotutako kalifikazioa**

1. Lotura duten gaiak bigarren batxilergokoak izango dira.
2. Gainditutako gaiak bakarrik hartuko dira kontuan.
3. Honako hauen bidez lortuko dira graduarekin lotutako gaietako kalifikazioak:
  - a. Batxilergoko azken ebaluazioa.
  - b. Aurreko araudiei jarraikiz egindako unibertsitate sarbiderako probak.
  - c. Atzerriko ikasketak dituzten ikasleen kasuan, jatorriko herrialdean egindako proba baliokideak, UHUNek egiaztatuak, edo UHUNek helburu horretarako egindako probak.
4. Gradu bakoitzean gehienez ere lotura duten 3 gai hartuko dira kontuan, eta 0,1 eta 0,4 arteko ponderazioa izango dute.
5. Ponderazio koefizienteen batuketan 0,4 izango da.
6. Lotura duten gaiak finakoak edo aurrez ezarritako zerrenda bateko onenak izan daitezke.
7. Bermatuta dago enborreko modalitate gaietako eta enborreko hautazkoetako kalifikazioekin 4 puntura iristeko aukera.
8. Gradu guztietako zerrendan, Euskara eta Literatura II irakasgaia eta gutxienez enborreko beste irakasgai bat daude.
9. Graduarekin lotutako kalifikazioak behin-behineko baliozkotasuna izango du.
10. Unibertsitateak onartu egingo ditu aurreko sistemetako unibertsitate sarbiderako probetan gainditutako gaien kalifikazioak, igaro den denbora gorabehera.

## Plazen esleipena

### *Lehenik eta behin*

- 1. BAE gainditu duten ikasleak, gradurako batxilergo lehenetsia egin dutenak.**
- 2. Goi mailako Prestakuntza Zikloko Titulua duten ikasleak, baldin eta beren lanbide familia graduarekin lotuta badago.**
- 3. Europako batxilergoa edo nazioartekoa duten ikasleak, betiere beren ikasketak gradurako batxilergo lehenetsiaren parekoak badira.**
- 4. Atzerriko ikasketa *komunitarioak* dituzten ikasleak, betiere beren ikasketak gradurako batxilergo lehenetsiaren parekoak badira eta jatorriko herrialdean unibertsitaterako sarbidea badute.**
- 5. Goi Mailako Prestakuntza Ziklo baten baliokideak diren atzerriko ikasketa *komunitarioak* dituzten ikasleak, baldin eta beren lanbide familia graduarekin lotuta badago eta jatorriko herrialdean unibertsitaterako sarbidea badute.**
- 6. Atzerriko ikasketa *ez-komunitarioak* dituzten ikasleak, betiere batxilergo homologatua badute eta beren ikasketak gradurako batxilergo lehenetsiaren parekoak badira.**
- 7. Espainiako sistema zaharretako batxilergoko ikasketak dituzten ikasleak, baldin eta bere garaian unibertsitaterako sarbidea bazuten eta beren batxilergoa gradurako batxilergo lehenetsiaren parekoa bada.**

### *Bigarrenik*

**Aurreko egoeraren batean dauden ikasleak, baldin eta beren ikasketak ez badira gradurako lehenetsiak.**

### *Hirugarrenik*

**Espainiako lehenagoko sistemetako batxilergoko tituluak, diplomak edo ikasketak dituzten ikasleak, betiere unibertsitatean sartzeko proba gainditu ez badute; eta batxilergoaren baliokide diren atzerriko ikasketak dituzten ikasleak, betiere jatorriko herrialdean unibertsitatera sartzetik ez badute.**